



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2023ko martxoa

BERBA-LAPIKO

**Garapen metodologikoa ahozko
konpetentzietan aurrera egiteko**

Esperientzia pilotuen ikerketa



Proiektuaren Garapen Taldea:

Olatz Bengoetxea Manterola – Soziolinguistika Klusterra – *Koordinatzailea*
Paula Laita Pallares – Soziolinguistika Klusterra
Agurtzane Azpeitia Eizagirre – Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) – *Zuzendaria*

Sekuentzia Didaktikoaren lantaldea:

Leire Diaz de Gereñu Lasaga – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)
Ibon Manterola Garate – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Berritzegune Nagusiko Aholkulariak

Sustatzailea


Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila
Soziolinguistika Klusterra

Txostenaren idazleak:

Olatz Bengoetxea
Paula Laita
Agurtzane Azpeitia

Soziolinguistika Klusterra Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain 943 592 556
<https://soziolinguistika.eus/eu/> kluster@soziolinguistika.eus

2023ko martxo



Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

0	SARRERA	3
1	EKINTZA-IKERKETA AMAITU.....	5
1.1	LHKO IBILBIDEA OSATU	5
1.2	LH1 ETA LH2 MAILETAN IKERKETA BIDERATU	8
1.2.1	Azterketarako adierazleak	8
1.2.2	Emaitzak	10
1.3	LH1 ETA LH2 MATERIAL DIDAKTIKOETAN EGOKITZAPENAK	19
2	IKASTETXEETAKO SISTEMATIZAZIOA ETA ITXIERA.....	20
3	ONDORIO NAGUSIAK	22

0 SARRERA

2022. urtera arte Berba-lapiko egitasmoa D eta E ikastetxeetan garatutako ikerketa pilotuan ardatzu da. 2022. urtean aldiz, proiektuan beste bi ildo berri jarri dira martxan, beheko irudian ikus daitekeen moduan: *Hedapena* eta *Berba-lapiko 2.0*.

Dena den, txosten honetan lehen ildo horri helduko diogu, D eta E ikastetxeetan garatutakoari.

Egitasmoa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta Soziolinguistika Klusterraren arteko 2013tik aurrerako hitzarmenaren barruan kokatzen da; eta Soziolinguistika Klusterrak abiatu zuen 2017-18 ikasturtean Mondragon Unibertsitateko HUHEZIREn zuzendaritzarekin.

Berba-lapiko proiektua hezkuntza esparruan euskararen erabileran eta konpetentzian sakontzeko proposamena dugu, batik bat testuinguru soziolinguistiko erdaldunei erreparatzen diena. Prestakuntza-ikerketa bidea eginez sakondu nahi da, euskararen ahozko konpetentzia praktikoa eta eraginkorra lortzeko irakasleen prestakuntzan, metodologia berriztatzean eta ikasleen garapen adierazleetan.

Hauexek dira proiektuaren helburu orokorrak:

- Eremu ez-euskaldunetako LHko ikasleen¹ ahozko hizkuntzan aurrerapenak eragitea eremu akademikoan:
 - Ikasleen garapen komunikatiboaren adierazleen bilaketan.
 - Egoera soziolinguistiko erdaldunetako ahozko errealitatean sakontzean.
- Irakasleak formatzea ahozko konpetentziaren kalitatean eta erabileran aurrerapenak eragiteko:
 - Irizpide didaktiko-metodologikoen egokitze eta aukeraketan.
 - Material didaktiko ezberdinen erabileran (baita ikasleak ere).
- Ikerketa emaitza eta ezagutza hedatzea:
 - Material didaktikoak: errutinak eta proposamen didaktikoak.
 - Formakuntza diseinuak edo-eta materiala zabaltzeko plataforma.
 - Emaitza txostena.

Ikerketa honi 2017-18 ikasturtean eman genion hasiera, eta D eta E ikastetxeetan garatu da, Lehen Hezkuntzan (LH). Lehendabiziko urtean, LHko goiko mailetan burutu zen ikerketa, poliki-poliki ikasturte honetan 1. ziklora iritsi bitarte. Mailaz

¹ *Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI), 2015. Ebaluazio Diagnostikoa. Txosten exekutiboak* dokumentuak eskaintzen dituen datuetan oinarrituta, bereziki, ikasleen ehuneko altu bat "hasierako mailan" kokatuta dagoen eskualdeetan jarriko da fokua.

maila diagnosis egin, metodologia egokitu, dispositibo didaktikoa sortu eta implementatzen dihardugu, ondoren, emaitzak eskuratu, irakasleekin deboluzioa egin eta horren arabera materialean beharrezko egokitzapenak egiteko.


Hortaz, 2021-2022 ikasturteko lanei dagokienez, hauexek dira garatu diren lanak:

- Lehen Hezkuntzako ekintza-ikerketa amaitu: A ikastetxean eta B ikastetxean LH1. eta LH2. mailan ekintza-ikerketa bideratu eta ondorioz, etapako ibilbidea osatu.
- Ikastetxeetan itxiera eta finkatzea: Berba-lapiko egitasmoa A ikastetxean eta B ikastetxean sistematizatuta geratzeko bidea egin eta aldi berean, egitasmoari itxiera eman denon artean.

1 EKINTZA-IKERKETA AMAITU

Aurretik aipatu moduan, ikerketa hau D eta E ikastetxeetan garatzen egon gara, Lehen Hezkuntzan. Lehendabiziko urtean, LHko goiko mailetan burutu zen ikerketa, eta ikasturte honetan helburu nagusienetako bat ikerketa LH1 eta LH2. mailara iristea izan da.

Beraz, batetik, LHko ibilbidea osatzeko aurreko urteetako prozesu bera jarraitu da.



1.1 LHKO IBILBIDEA OSATU

D eta E ikastetxeetan ekintza-ikerketarekin jarraitu da 2021-2022 ikasturtean, eta era berean, amaiera eman zaio. Jarraian, urtearen hasieran proiektua nola zegoen erakusten duen taula dago. Ikerketa faseari itxiera emateko, batik bat LH1. zikloan jarri da indarra 2022an.

	Lehen Hezkuntza 2022 hasiera					
	LH1	LH2	LH3	LH4	LH5	LH6
Diagnostikoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓

Formazio orokorra	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Talde txikitako formazioa	-	-	✓	✓	✓	✓
Materialaren diseinua	-	✓	✓	✓	✓	✓
Inplementazioa	-	-	✓	✓	✓	✓
Emaitzen ikerketa	-	-	✓	✓	✓	✓
Egokitzapenak materialean	-	-	-	✓	✓	✓

Egitasmoaren ildo honetan, hauexek dira 2021-22 ikasturtean egindako lanak:

- **LH2. mailako material didaktikoaren bigarren aldaera**

2020an LH2. mailarako Hizkuntza-errutinen metodologia egokitu eta dispositibo didaktikoa sortzen hasi ginen. Mailaz maila testu genero zehatz bat landu genuen ikasleak hizketarako molde ezberdinetan trebatzeko asmoz. Kasu honetan, deskribapen testua landu zen beti ere egoera komunikatibo esanguratsu baten baitan. LH2. mailan ikasleek "gure gela kuttuna" atondu zuten.

Aurreko ikasturte honetan bigarren aldaera bat sortu dugu; izan ere, bi ikastetxeak testuinguru soziolinguistiko berdinekoak izanda ere, eskola bakoitzak bere errealitatea dauka. Hortaz, aurreko mailetan egindako bideari jarraituz, bigarren aldaera bat sortu dugu.

- **LH1. mailako material didaktikoaren diseinua**

LH1. mailarako hizkuntza-errutinetan oraindik eta gehiago sakondu beharra zegoen ikasleen oinarrizko komunikazio-estrategietan, bai metodologikoki, bai prestakuntzaren ikuspegitik. Beraz, LH1. mailarako material didaktikoa sortu dugu, bigarren hiruhilekoan implementatu ahal izateko.

- **Prestakuntza**

Ekintza-ikerketa honen ezaugarri nagusietako bat irakasleen prestakuntza izan da. 2021-22 ikasturtean LH1. eta LH2. zikloko irakasleekin hainbat formazio-saio antolatu dira. Bi ardatzen inguruan: hizkuntza errutinaren metodologiaren inguruan batetik, bestetik, ahozko eredu bat baliatuz, irakasgarriak diren alderdiak identifikatu dira, era horretan aukera egon da lanketa sistematizatu eta aldamiatu bat egiteko.

- **Gela barruko esku-hartzeak eta emaitzen azterketa**

LH2. mailan udazkenean burutu da esku-hartzea. Gabonak aurretik inplementazioak bukatzea garrantzitsua izan da ikerketarako. Bestalde, LH1. mailako irakasleekin aldiz, adostu da urtarriletik aurrera bideratzea esku-hartzea, baina formazio zehatzak ere. Hala, Aste Santu aurretik amaitutzat eman dira pilotajeak.

Ondoren, bigarren fase batean, grabaketa guztiak transkribatu eta emaitzak aztertu dira.

Txosten honetako 2.2.2 ataletan jaso dira emaitza guztiak.


- **Balorazioak eta egokitzapenak**

Maila guztietako irakasleekin elkarrizketa egin da material didaktikoa inplementatu ondorengo balorazioa jasotzeko eta aldi berean, irakasleek emaitzen berri izateko. Garrantzitsua da jakitea bai irakasleak, bai ikasleak nola moldatu diren metodologia eta material didaktiko berriarekin. Zeintzuk izan diren saioretako eta materialetako indargune eta ahulguneak, baita formazio-saioretan ere.

- **Harreman sarea**

Beheraxeago ikusiko dugun bezala, hasieratik sortutako lan-taldearekin jarraitu da aurrera. Eskertzekoa da benetan guztion inplikazioa. Azpimarratu nahi da Berritzeguneko aholkulariak egiten ari diren lana, proiektua oso gertutik jarraitu dute bai prestakuntza, bai esku-hartze aldetik. Eta era berean, behatzaile-rola betetzen dute, proiektuaren nondik norakoei kanpo begirada bat eskainiz.

Esan beharra dugu, Hezkuntza saileko teknikariekin ere harreman zuzena mantendu dela, proiektuaren garapenaren berri emanez.



1.2 LH1 ETA LH2 MAILETAN IKERKETA BIDERATU

Betiko Berba-lapiko ikerketaren baitan, 2021-2022 ikasturtean A ikastetxea eta B ikastetxean, LH1. eta LH2. mailako ikasleekin hiru hilabetez modu sistematiko eta progresiboan hizkuntza errutinak inplementatu dira eta arreta jarri da hizkuntza baliabide jakin batzuk lantzean: kontaketa (LH1) eta deskribapen (LH2) testuen egitura orokorra ezagutu eta barneratzean, oinarrizko hizkuntza forma batzuk ulertu eta ekoiztean, eta lexiko berria ikastean. Horrekin batera, noski, ikasleek hizkuntzarekin gozatzea eta euskarekiko atxikimendua handitzea ere nahi izan da, kultura baliatuz hitzun aktiboak sortzeko.

Errutinen eragina aztertzeko aurretestuak eta ondotestuak jaso eta aztertu dira. Guztira, **E ikastetxean, LH1.** mailan, **12 testu** (6 aurretestu, 6 ondotestu) jaso dira, eta **LH2.** mailan, **16 testu** (8 aurretestu, 8 ondotestu). **D ikastetxean, LH1.** mailan, **27 testu** (12 aurretestu, 15 ondotestu) jaso dira, eta **LH2.** mailan, **24 testu** (12 aurretestu, 12 ondotestu).

1.2.1 Azterketarako adierazleak

Ikerketaren helburua ikasle hauek ahozko komunikazioan egin duten garapenaren aztarnak ahalik eta modurik zehatzenean aztertzea izan da eta horretarako alde zuzenetik eraikitako errubrikaz baliatu gara. Errubrikak, izan ere, hizkuntza trebetasunen mailaketa eta lorpen adierazleak modu progresibo batean zehazteko eta antolatzeko aukera eskaintzen du (Sotomayor, Ávila eta Jéldrezek 2015:12)² Halaber, bitarteko honek ikasleak egin duen garapena ebaluatzeko oinarri sendoak ematen ditu eta hori oso erabilgarria izan da, ahozko hizkuntza bezala, dimentsio anitza eta konplexua da gertakari bat ertz ezberdinetatik aztertzeko.

Condemarín eta Medinaren arabera (2000)³ ere, ikaskuntzak ebaluatzeko informazio erabilgarria eskaintzen du errubrikak eta ikaskuntzan izandako garapen maila ebaluatzeko ekarpena egiten du, bereziki dimentsioak, irizpideak eta mailak eskaintzen dituen bitartekoa delako (Sotomayor, Ávila eta Jéldrezek 2015:12).

Errubrikak bi motatakoak izan ohi dira: holistikoak eta analitikoak. Lehenak, begirada globala eskaintzen du, eta analitikoak, berriz, hizkuntza jardura hori dimentsio edo gaitasunetan eta irizpidetan bereizten du (dimentsio linguistiko, testual, diskurtsiboa...) eta horri Sotomayor, Ávila eta Jéldrezek (2015) honako abantailak ikusten dizkiote:

- Dimentsio bakoitzeko (eta gure kasuan dimentsio hori irizpideen arabera desglosatuta egongo da) ikasleek duten maila ezagutzeak aukera eskaintzen du dimentsio bakoitza berariaz landu, irakatsi, praktikan jarri eta ebaluatzeko: *"al dar a conocer por separado el desempeño esperado en cada dimensión, las rúbricas analíticas permiten enseñar, practicar y evaluar cada una de las dimensiones de la producción"* (2015:12) .

² Sotomayor, C., Ávila, N. eta Jéldrez, E. (2015). *Rúbricas y otras herramientas para desarrollar la escritura en el aula, Chile*. Chile: Santillana del Pacífico S.A. de Ediciones.

³ Condemarín, M & Medina, A. (2000). *La evaluación auténtica de los aprendizajes*. Santiago: Andrés Bello.

- Halaber, ekoizpenetan arretaguneak zehazten laguntzen du, eta konplexutasunaz jabetzen ere bai.
- Garapen horretan indargunean eta hobetzekoak identifikatzen ere laguntzen du.

Gure kasuan, ikasleen garapenaren aztarnak ebaluatzeko, bi alderdi uztartu ditugu: batetik, ikasleen garapenaren argazki orokor edo global bat ematen saiatu gara, eta bestetik, ikasle horren ahozkoan gaitasun edo dimentsio bakoitzeko egin duen garapena gehiago zehazten saiatu gara.

Eraikitako errubrika ez da hutsetik sortu, hainbat adituren⁴ ekarriak eta ahozko lantzeko zenbait errubrika aztertu eta hizkuntza errutinen metodologian maila bakoitzeko langai izan diren adierazleak ere modu mailakatuan txertatuz eraiki da.

Ahozkoaren lanketari begira, eta hizkuntza errutinetan langai izan ditugun alderdiak aintzat hatuz, sortu dugun errubrikan bi dimentsio nagusi bereizi ditugu: dimentsio linguistiko testuala eta dimentsio diskurtsibo-erretorikoa. Dimentsio bakoitzaren barruan hainbat irizpide daude.

a) Dimentsio linguistiko-testualean:

- **Testuaren egitura eta testuaren kohesioa eta koherentzia:** helburu komunikatiboei erantzuteko, ikasleen ahozko ekoizpena zentzu-unitate gisa (modu autonomoan eta koherentean) nola antolatzen den aztertu da. Informazioaren aukeraketan eta horren antolaketan egitura jakin bat ikusten da. Beraz, ea eskatutako testuaren testu-egitura errespetatzen den ikusi da irizpide honekin: kontaketa, narrazioa, deskribapena edo azalpena. Horrekin batera, informazioaren arteko harremanak gauzatzeko hizkuntza-mekanismoak (kohesio- baliabideak) erabiltzen diren ere bai.
- **Morfologia** eta honen barnean **deklinabidea** eta **aditza** nabarmendu ditugu.
- **Sintaxia** ahozko diskurtsoan perpaus bakunez gain, koordinatuak nahiz menpekoak ekoizteko gai da; eta
- **Lexikoa** edo langai izan zen edota ez den hiztegia murrizta den ala askotarikoa. Funtsean, arau morfosintaktikoen erabilera zuzena den zehaztu da, baita lexiko egokiaren erabilera zuzena eta askotarikoa den ere.

b) Dimentsio diskurtsibo-erretorikoan:

⁴ Carmen Sotomayor Natalia Ávila Elvira Jéldrez (2015). *Rúbricas y otras herramientas para desarrollar la escritura en el aula*, Chile, Chile: Santillana del Pacífico S.A. de Ediciones.

Vila, F. X. i al. (2021). "Una anàlisi comparativa del domini del català i del castellà orals a la fi de l'educació secundària obligatòria a Catalunya". *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language of Law*, 75, 85-106. <https://doi.org/10.2436/rld.i75.2021.3592>.

ISEI-IVEI (2021). *Ebaluazio-diagnostikoaren markoa (Lehen Hezkuntzako 4. maila): hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia* (euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza)

ISEI-IVEI. "Mintzamenerako ebaluazioa": LH4.maila

Garro, E.; Pérez, K.; Azpeitia, A. eta Irizar, A. (2021). "Jendaurreko ahozko aurkezpen lanketa unibertsitatean Sekuentzia didaktiko eta praktika gogoetatsuen bidez", *Ikastaria*, 18. zenbakia, 195-219 or.

- **Komunikazio egoerara egokitzea:** Eskatutako egoera komunikatiboari eta eginkizunaren helburuari egokitzen ote zaion, zailtasunak izan ote dituen aztertu da; ekoizpenak helburua ongi bete ote duen.
- **Jarioa:** Jario kontzeptuak ere adiera ezberdinak izan ohi ditu. Maiz, ahozko diskurtsoak etenik gabe aurrera egiten duten ala ez ikusteko erabiltzen da. Hori albo batera utzi gabe, jariootasunez aritzeari esanahi sakonagoa etaaldi berean zabalagoa eman diogu: ahozko diskurtso-estrategiak erabiltzen ote dituzten aztertzeko ere baliatu dugu. Hau da, hartzaileak informazioa ongi ulertu dezan, diskurtsoa egituratzeko, zehazteko, azaltzeko, zuzentzeko, birformulatzeko estrategiarik erabiltzen ote duen, eta erabiltzekotan zein estrategia nagusitzen den aztertu nahi izan dugu.

Irizpide bakoitzeko lorpen-adierazleak finkatu dira eta horrela osatu dira ikasleen gaitasuna deskribatzen duten **lau mailak** (A maila, mailarik gorena, eta D maila baxuena, tartean B eta C mailak). Horrela, irizpide bakoitzean, maila jakin batean dagoen ikasleak nolako ekoizpenak egiten dituen zehaztu da, baita mailaz igo ote den, edo bere horretan geratu den aztertu da. Batzuetan hobekuntza egon zitekeen adierazleren batean, baina mailaz igo dela esateko beste ez.

1.2.2 Emaitzak

Lehen aipatu dugun bezala, Betiko Berba-lapiko ikerketaren baitan, 2021-2022 ikasturtean, bi ikastetxek parte hartu dute eta LH1. eta LH2. mailetan, aurretestuak eta ondotestuak jaso dira.

a) LH2. mailako emaitzak

Maila honetan, deskribapen testu mota lantzen da materialetan (*Gure gela kuttuna* izenekoan). Egunero tarte bat hartzen dute eta haien gela kuttuna atontzeko ekarri dituzten gauzei eta lagunei buruz aritzen dira.

Helburua da azken ekoizpenean (ondotestuan) ondoko gelakoei sortutako gela berria erakustea, asmakizun moduan.

Horretarako, **lantzen diren hizkuntza baliabideak** honako hauek dira: deskribapen testuen egitura orokorra ezagutu eta barneratzea; oinarriko hizkuntza-formak ulertu eta ekoiztea (*nor, zer, zergatik, zertarako, non*); ezezko esaldiak sortzen ikastea; izaera eta alderdi fisikoa deskribatzen dituzten adjektiboek eta lexiko berriaz jabetzea (*argala, txikia, ilegorria, buruargia, ausarta, bidaiaria...*); graduatzaileak erabiltzea (*oso, sano, aski*); *zerezkoa/zerez eginda* estrukturalak erabiltzea; adjektiboetatik ekintzetara jauzi egiten ikastea (*zer du/ez du? zer egiten du/zer ez du egiten? zer gustatzen zaio/zer ez zaio gustatzen?*); komunikazio-estrategiak erabiltzen eta diskurtsoa lotzen ikastea; zerbait nola esan ez dakigunean, beste modu batean esaten irakastea, estrategien bidez; eta *baina* zein *eta* formak lantzea, informazioa gehitzeko eta antolatzeko erabiltzen ikastea.

LH2. mailan, E ikastetxean, **16 testu** (8 aurretestu, 8 ondotestu) eta D ikastetxean, **24 testu** (12 aurretestu, 12 ondotestu) jaso dira.

Emaitzak, labur-labur:

- **LH2ko ikasle gehienek aurretestutik ondotestura jauzia** egin dute, nahiz eta maila bateko jauzia izan. Bakarren bat, maila berean geratu da, baina maila horren baitan ere oinarrizkoagotik altuagora igarota.
- **Gehienak D maila edo C maila batetik abiatu** dira eta **maila bateko jauzia egin dute** (nahiz eta adierazle guztietan ez gertatu).
- Ez dugu B maila batetik A maila baterako jauzirik ikusi, ezta bi mailako jauzia egin duenik ere, ez bada D batetik abiatu eta C altu batera edo B baxu batera pasa den ikasle bat.

1. Dtik C mailarako jauzia, adierazlez adierazle:

Adibidea:

Aurretestua	Ondotestua
Ik: Ikaslea Ir: Irakaslea Ik2: Beste ikasle bat	Ik: Ikaslea Ir: Irakaslea Ik2: Beste ikasle bat
Ir: Venga. Ik: Nik gauza bat erakutsi nahi dut / Eta dau x / egin dut margoekin / eta: mm kolorea du / Mmm (3'') Ik2: Venga! Ik: Mmm (6'') Ir: Non jarriko duzu? Ik: Paretan! Ir: Vale / Zer gehiago? / Deskribatu! Ik: Es que ez dakit! Ir: Begiratu pixka bat (...) Ik: Karratua. Ir: Eta zertarako ekarri duzu? Ik: Dekoratzeko. Ir: Vale / Haizea / nolakoa dela esan du? Ik2: Karratua. Ik: Bueno / lauki zuzena. Ir: Zer gehiago esan du? (...) Ik2: Marrazkia. Ir: Marrazki bat da / IK? Ik: Bai. Ir: A ver / erakutsiko diguzu? Ik: Hau. Ir: Oso ondo!	Ik: Marroia da: [ikasleak mugitzen eta baxu hitz egiten] Ir: Egon geldirik! / Entzun! Ik: Berdea dauka: / Urdina: / Kolorezko bolatxoa:k / Parke ba:t / Belarra: / Sustraia:k / Emm (3'') / Katu bat dauka poltsan / Emm eta ez dakit. Ir: Nolakoa da agertzen dena hor? Ik: Koloretsua Ir: Koloretsua da: / Normalean nolakoak izaten dira? Ik: Handiak. Ir: Handiak eta? Ik: E: altuak Ir: Vale / Zer gehiago? Ik: Basoetan daude... / Emm (3'') / mendian ere bai Ir: Eta koloretsua dela esan duzu? / Eta badakizu zerez egina dago? / hor agertzen dena? Ik: Margoz! Ir: Vale Ik: Eta paperez Ir: Vale / Badakizue zer den? Ik2: Bai [hainbat ikasle aldi berean, eskuak altxatuta dituzten bitartea] Ir: IK2? Ik2: E: Haizearen zuhaitza Ir: Haizearen zuhaitza da? Bai ezta? [Argazkia erakutsi]

	<i>Ir: Vale / Oso ondo egin dute / ezta? Txalotuko ditugu?</i>
--	--

D-C jauzia egin duten ikasleek bereziki **testuaren kohesioari eta testuaren antolamenduari** dagokion adierazlean egin dute jauzirik nabarmenena, eta baita lexikoari dagokionez ere. Sintaxiari dagokionez, ez da jauzi handia nabarmendu, oraindik esaldi bakunak egiten dituzte, eta maiz esaldi barneko sintagma gutxi batzuk metatzen dituzte. Esaldi solte batzuk egitetik, eta irakasleak lagunduta zehaztaperen gehiago esatetik, diskurtso monologalago bat eraikitza iristen da, irakaslearen laguntzarik gabe.

Garapena ikusi da testuaren kohesio eta koherentziari dagokion dimentsioari dagokionez. Irakaslearen laguntzaz ezaugarri gutxi eta solte batzuk esatetik, gai izan dira modu autonomoagoan (irakaslearen galderekin baliatu gabe) diskurtso koherente xamar bat egiteko. Bertan, alderdi fisikoak ("potoloa da", "koloretsua", "horia", "pixka bat laranja", "beltza", "pixka bat lodia"), edo eta zerez eginda dagoen ("paperez") edo deskribatzen ari denak egiten dituen ekintzak gehitu ditzakete ("opariak ekartzen ditu", "ikatzak egiten du"). Oraindik alderdi fisikoari dagokionez, deskribapen laburrak dira eta izaerari dagozkion alderdiak gutxi agertzen dira ("barregarria", "bihotz onekoa", "lagun ona"). Beraz, diskurtso autonomoa eta koherentea.

Deklinabideari dagokionez, oro har, ez da garapen handirik ikusten, baina badago jauzi txiki bat: aurretetan, oro har, oinarrizko deklinabideko kasu marka gutxi daude, eta beti ez dira sintagma elkarrekin josteko batzuetan hitz solteak daude eta horiek irakasleak egindako galderaren erantzun gisa adierazten dituzte. Ondotetan irakaslearen galderarik gabe ere agertzen dira eta ez dira hitz soilak; esaldiaren barruko hitzetan edo sintagmetan txertatuta daude. Oinarrizkoekin gain, langai izan diren, "zerezko edo zerez, non, zertarako" agertu ohi dira.

Sintaxi mailan ez dago apenas aurrerapenik. Perpaus koordinaturen bat agertzen da, baina maiz perpaus bakunetara mugatzen dira. Dena den, adjektiboak gehituaz esaldiak luzatu egiten dituzte: "gauza bat da... dauka lau hatzamarra e oinarri da pixka bat horia, pixka bat laranja da eta pixka bat e beltza ere bai dauka begi beltzak". Zentzu horretan esango genuke diskurtsoa pixka bat konplexuagotzea lortzen dutela.

Jarioari dagokionez, aurretetan diskurtsoa etena da isilik geratzeko joera nabarmena da, edo irakaslearen galderak ezinbestekoak dira jarioa berreskuratzeko. Ondotetan, berriz, isiltasun etenak oraindik badauden arren, ez dira.

Komunikazio estrategietan ere oraindik lan handia dago egiteko: autozuzenketaren bat egon litekeen arren, hitzen bat edo egituraren bat euskaraz nola esan ez dakitenean, birformulazioak egiteko edo laguntza eskatzeko baliabideak gutxi agertu dira.

2. C tik B baxu baterako jauzia, adierazle adierazle:

Adibidea:

Aurretestua	Ondotestua
<p>Ik: Ikaslea Ir: Irakaslea Ik2: Beste ikasle bat</p> <p><i>Vale! Orain IK-n txanda da!</i> Ik: <i>Dauka gorrito / gorrito bat (oso baxu esaten du) / Dauka gorro bat / txanoa.</i> Ir: <i>Egin altuago</i> Ik: <i>Dauka txanoa: / E: (3'') dauka / dauka asko tripa [triparen keinua egin].</i> Ik: <i>Lodia?</i> Ir: <i>Shhh / Vale</i> M: <i>(4'') Mmm ematen du regaloak / eta / faltatzen da gutxi etortzeko.</i> X: <i>Ooo! / Nik badakit.</i> X: <i>Nik badakit</i> Ir: <i>Eta non Jarriko dugu IK?</i> Ik: <i>E: hor. [lekua seinlatu]</i> Ir: <i>Hor non?</i> X: <i>Jolasen txokoan?</i> Ik: <i>Bai.</i> Ir: <i>Vale / jolasen txokoan jarriko dugu / ETA ZERTARAKO EKARRI DUZU?</i> Ik: <i>Jolasteko</i> Ir: <i>Jolasteko / oso ondo / NOLAKOA DELA ESAN DU / IK?</i> X (...) <i></i> Ik: <i>Eta hemen dauka botoia baina ez dauka bateria!</i> Ir: <i>Bueno baino apaintzeko ondo dago ezta? / Primeran! / Txalotuko ditugu? [txaloak]</i> Ir: <i>Venga ba! / Oso ondo / ezta?</i></p>	<p>Ik: Ikaslea Ir: Irakaslea Ir2: Beste irakasle bat Ik2: Beste ikasle bat</p> <p><i>Ir: Venga IK / zure txanda! / Saiatu ez iraku... erakusten.</i> <i>[Irudia poltsatik atera, eta bere ikaskide batek lagundu]</i> Ir2: <i>Ona ahalegina [irriak]</i> Ik: <i>Urdina da:</i> Ir2: <i>Pixka bat ozenago / pixka bat ozenago hitz egin</i> Ik: <i>Zer?</i> Ir2: <i>Altuago hitz egin</i> Ir2: <i>Ozenago hitz egin / altuago</i> Ik: <i>Urdina da: / Dauka pixkatxo bat zuria / Dauka ere bai pixkatxo bat gorri:a: / Bere begiak dira X / bere begiak e: koloretakoak dira e: berdeak eta: (17'')</i> Ir: <i>Esan beste gauza bat</i> Ik: <i>Beltzak / Dauka guanteak / (3'') X bi kolak dauka / Mokoa bat bezala dauka.</i> Ir: <i>Eta nolakoa da bera?</i> Ik: <i>E: ert- ertaina.</i> Ir: <i>Ertaina da: / vale:.</i> Ik: <i>Oinak dira horiak / Iletsua da / X da: / (5'') Ona da: (9'')</i> Ir: <i>Nolakoa da bere izaera? / barrutik?</i> Ik: <i>Ona / lagun-mina / dibertigarria / Em... (11'') [paretan dauden fitxak irakurtzen hasi] luzea / (8'') X / polita.</i> Ir: <i>Vale (3'') / Badakigu nor den?</i> X: <i>Bai [denak aldi berean, eta eskuak altxatuta]</i> Ir: <i>IK?</i> X: <i>Txori zoroa.</i> Ir: <i>Bai /Bai ezta?</i></p>

Jauzi hau egin dutenek, bereziki aldea egituran eta zehaztapenetan antzeman dugu. Aurretestuan baino ondotestuan **diskurtso monologalagoa** da eta deskribatu behar duen objektu edo pertsonaia zehazteko **adjektibo ugariago** erabiltzen ditu, baita izaerari dagozkionak ere: *"lagun ona, bihotz onekoa, lagun-mina / dibertigarria..."* eta deskribapena egituratuago dago. Beraz, **lexikoan ere**

aberatsagoa da, eta hori **aditz ekintzetan** ere antzematen da: "*opariak ekartzen ditu*" eta "*ikatz egiten du*". Bestalde IZAN eta UKAN aditzak ongi erabiltzen dituzte, nahasketarik gabe, bai aurretestuan eta baita ondotestuan ere

Deklinabideari dagokionez: C mailatik B maila altura. Aurretestuan batik bat oinarritzko kasu-markak agertzen dira, zuzen. Baina ondotestuan aberastasun handiagoa dago: *zerez, zerezkoa* (singular, plural); *zertarako, non* (singular, plural) agertzen dira.

Sintaxian oraindik ere esaldi bakunak dira nagusi, eta konposatuak egiten dituztenean koordinaziozkoak egiten dituzte: "*eta*" eta "*ere bai*" bezalakoekin jositakoak.

Komunikazio estrategietan ere oraindik lan handia dago egiteko: autozuzenketaren bat egon litekeen arren, hitzen bat edo egituraren bat euskaraz nola esan ez dakitenean, birformulazioak egiteko edo laguntza eskatzeko baliabide gutxi agertu dira. Honako hauek nabarmenduko genituzke:

- Gaztelaniazko hitzak saihesteko, edo zerbait esaten ez dakitenean strategiaren bat jartzen dute abian: "*paperezkoa*", "*ez ez da paperezkoa, ez da plater bat bezala... Nola esaten da vaso?*"; "*Dago eginda ba e: e: / egin dut nik bakarrik / eta dago eginda e: e: / Zelan esaten da?*"
- Zehaztapen gehiago behar den jakiteko edo diskurtsoan aurrera egiteko estrategia: "*bestalde, zer gehiago?*"; "*eta zer*" bezalako galdera erretoriko modukoak: diskurtsoan aurrera egiteko denbora irabazten du eta continuum bat ematen dio: "*Bizarra txuria du/ bibotea ere bai, eta zer... begi beltzak du*".

Horrelako estrategiek, 1) diskurtsoan gehiago zehaztuz joateko baliagarri dira (: *zer gehiago?*); 2) Euskaraz ezaugarritzeko euskarazko hitza falta dutenean, pistak eskatzeko edo laguntza eskatzeko komunikazio-estrategia bihurtzen da (*ez da paperezkoa. ez da plater bat bezala... nola esaten da "vaso"?*). Horiek guztiek diskurtso konplexua osatzeko bideak irekitzen dituzte, baina alderdi honetan oraindik lan handia dago egiteko.

b) LH1. mailako emaitzak

Maila honetan, kontaketa testu mota lantzen da materialetan (*Minutu bat goizero izenekoan*). Goizero tarte bat hartzen dute eta tartean ametsak elkarrekin partekatzen dituzte.

Helburua da azken ekoizpenean (ondotestuan) haiek izandako amets bat kontatzea.

Horretarako, **lantzen diren hizkuntza baliabideak** honako hauek dira: kontaketa testuaren egitura orokorra ezagutu eta makro eta mikro egitura barneratzea (pertsonaia batzuen istorioak eta ikasleek beraiek izandako ametsak kontatu behar dituzte); oinarritzko deklinabideak ikastea (*non, norekin*); *izan/ukan-eduki* eta *egon* aditzen forma trinkoak eta laguntzaileak erabiltzea (orainaldian eta lehenaldian); baiezko eta ezezko perpausak orainaldian erabiltzea; testu-antolatzaile berriak

ikastea (*lehenengo, gero, amaieran, bat-batean, halako batean*); eta adjektibo eta aditzondo berriak erabiltzea (koloreak, neurriak, sentipenak).

LH1. mailan, 2021-2022 ikasturtean, bi ikastetxetako datuak jaso eta aztertu dira: D ikastetxean, **12 testu** (6 aurretestu, 6 ondotestu) jaso dira; E ikastetxean, **27 testu** (12 aurretestu, 15 ondotestu), hain zuzen ere.

Hurrengo bi ataletan E ikastetxean eta D ikastetxean LH1. mailan ateratako emaitzak jaso ditugu.

1. E ikastetxea:

Orokorrean, espero bezala (hasierako diagnosian ere hala ondorioztatu moduan) B ikastetxeko ikasleak maila altuago batetik abiatu dira. Aztertutako ekoizpenetatik:

- Ikasle guztiak **C maila batetik abiatu** dira **eta B mailara iritsi** dira. Hau da, ikasle guztiengan **maila bateko jauzia nabaria da** (nahiz eta adierazle guztietan ez gertatu).
- Ikasle batengan ere, ez da ikusi bi mailako jauzia egon denik, baina bi kasuetan A maila baxura ere iritsi dira.

Hona hemen **C maila batetik B maila baterako jauziaren** argazki zehatzagoa, adierazlez adierazle.

Adibidea:

Aurretestua	Ondotestua
Ik: Ikaslea Ir: Irakaslea Ik2: Beste ikasle bat	Ik: Ikaslea Ir: Irakaslea
<i>Ir: Benga beste baten txanda / Nora / Gogoratu ezin duzula irudi berdina erabili / e: bota.</i>	<i>Ir: Bale / Nora.</i>
<i>Ik: Daude jolasten futbolan (2") / Eta dauka mutila sudadera horia (2") / Eta neska dago paratzen / eta ez du paratu.</i>	<i>Ik: Igandean joan nintzen Dubaira nire izekorekin, nire aitarekin, nire amarekin, nire osabarekin, nire arrebarekin eta ni / Eta joan nintzen piscinara / eta gero nire ama eta nire aita eta Mikel eta osaba joan ziren beste leku batera / eta ni asustatu nintzen / eta egin nuen negar / joan nintzen pixka bat piscinara / eta gero joan nintzen Jacuzzira / eta ikusi nuen nire izeko / Bukatu dut.</i>
<i>Ir: Galdetu / Galdetu.</i>	<i>Ir: Eta izeko ikustera joan zinenean lasaiago geratu zinen?</i>
<i>Ik: Ezetz igarri?</i>	<i>Ik: Bai.</i>
<i>Ir: Ea / Nori galdetzen diozu?</i>	
<i>Ik: E: IK2.</i>	
<i>Ik2: Hau da?</i>	
<i>Ik: Bai.</i>	
<i>Ir: Asmatu du?</i>	
<i>Ik: Bai.</i>	
<i>Ir: Ederto oso ondo.</i>	

Talde honetako ikasle gehienek **dimentsio diskurtsibo-erretorikoan** egin dute **jauzirik nabarmena**. Bai aurretestuan, bai ondotestuan **komunikazio egoerari eta eginkizunari** ondo egokitu arren, jarioan batez ere ikusi da aurrerapena. Diskurtsoa luzeagoa da, nolabaiteko konplexutasuna du, eta diskurtso estrategiak erabiltzen dira. Ikasleek azkarrago ekoiztu dituzte ideak eta intonazio erakusten dute. Jario handiz adierazten dute, etenik gabeko erritmoarekin. Kasu batzuetan, erdal makuluren bat ere erabiltzen dute ("e:").

Gaitasun linguistiko-testualean ere jauzi txikia ikusi da. **Testuaren egitura eta testuaren kohesioa eta koherentziari** dagokienez, ondotestuan, nahiz eta atal batzuk falta diren, testu egiturari neurri batean errespetatzen dute. Antolatzaileei dagokienez, aurrettestuetan ideiak solteago agertzen dira, edo "eta" batekin lotzen dira; ondotestuan beste hainbat antolatzaile berri ere agertzen dira: "eta gero". Denborazkoren bat ere erabiltzen dute ("*igandean*").

Morfologiari dagokionez, langai izan diren deklinabideko kasu batzuk aurkitu dira ("*nire izekorekin, nire aitarekin, nire amarekin, nire osabarekin, nire arrebarekin*"), baita langai izan ez diren batzuk bai ("*Dubaira*", "*piscinara*"). Aditzaren denborak ezagutzen dituzte: aurrettestuan, orainaldia ("*dago*", "*dauka*"), eta ondotestuan, lehenaldia ("*joan nintzen, ikusi nuen, egin nuen*"). Nahiz eta kasu batzuetan beti zuzen ez erabili arren, aditzaren denbora eta pertsona desberdinak erabiltzen saiatu da.

Sintaxian ere jauzia ikusi da. Aurrettestuan sintaxi sinplea eta gutxi landua erabiltzen da kasu guztietan. Ez dira akats ugari egiten, baina perpaus bakunetara mugatzen dira. Ondotestuan, sintaxia osatuago da, nahiz eta koordinatuak bakarrik agertu ("*eta*").

Lexikoari dagokionez, orokorrean jauzi txikia ikusi da; erabiltzen den lexikoa zuzena da, eta lexiko gehiago erabiltzen dute ondotestuan, aurrettestuan baino. Dena den, langai izan diren hitz gutxi agertzen dira ("*joan*"), eta langai izan ez direnak erabiltzen dira ("*igandea, izeko, aita, ama, osabaleku, joan, ikusi, bukatu*"). Kasu batzuetan, erdal hitzak ere agertzen dira ("*piszina, asustatu*").

2. D ikastetxea:

A ikastetxeko ikasleek, nahiz eta maila baxuago batetik abiatu, horiek ere jauzia eman dute.

- Bi ikasle **D maila batetik C maila batera** pasatu dira. Beste biak **C maila baxuan hasi dira eta, C maila altura pasatu dira**. Beraz, maila honetan mantendu arren, haiek ere jauzia txiki bat eman dute.

Hona hemen **D maila batetik C maila baterako jauziaren** argazki zehatzagoa, adierazlez adierazle.

Adibidea:

Aurrettestua	Ondotestua
Ik: Ikaslea Ir: Irakaslea	Ik: Ikaslea Ir: Irakaslea

<p><i>Ir: Bat bi eta hiru / A: bai ezta? / Bai ezta? / IK.</i> <i>Ik: Da mutila.</i> <i>Ir: Zer du jantzita?</i> <i>Ik: Arropa urdina.</i> <i>Ir: Apur bat altuago esan dezakezu June? / Arropa urdina ezta? / Altu.</i> <i>Ik: Arropa urdina.</i> <i>Ir: Zer egiten ari da?</i> <i>Ik: Lavándose los dientes.</i> <i>Ir: Hortzak...</i> <i>Ik: Hortzak garbitzen.</i> <i>Ir: Oso ondo / hortzak garbitzen / Hori da IK? / Hori da?</i> <i>Ik: Bai.</i> <i>Ir: Oso ondo / Oso ondo / Ba beste egun batean beste batzuk egingo ditugu / lasai jarriko gara hemen.</i></p>	<p><i>Ik2: Beste ikasle bat</i> <i>Ik3: Beste ikasle bat</i></p> <p><i>Ik: Hasieran ni ta nire ama eta nire aita (4") / castillo batean.</i> <i>Ir: Apur bat altuago egin beharko dugu / Bale? / Guztiok entzuteko / Bale? / Oso ondo egin duzu / errepikatuko duzu?</i> <i>Ik: Hasieran</i> <i>Ir: Fuerte / Hasieran...</i> <i>Ik: Nik nago nire (x) nire ama eta nire aita / castillo batean / gero (3") / nago nik printzesa eta rey bat / Eta gero nago ni, nire tato nire aita nire ama printzesak eta nire aita.</i> <i>Ir: Eta zer gertatzen da hor?</i> <i>Ik: E: e: e: / Gertatzen da (4") / zure (5") / zure (x) nire etxera.</i> <i>Ir: Bale.</i> <i>Ik: Eta amaieran gaztelua dago...</i> <i>Ir: Nola dago? / Nola dago gaztelua? / Nola dago? / norbait dago?</i> <i>Ik: Ez.</i> <i>Ir: Orduan nola dago? / Bestela esan nor dago hor barruan?</i> <i>Ik: Dago gazteluan printzesa.</i> <i>Ir: Oso ondo / primeran / zelan esaten da castillo?</i> <i>Ik2: Gaztelu.</i> <i>Ir: Berak esan behar du / eskua altxatu bestela / Gainera bazenekien / Atzo gaztelu eta gaur berriz castillo ezta? / Oso ondo / Amets ona edo gaiztoa izan da?</i> <i>Ik: Ona.</i> <i>Ir: Ona izan da / Hasieratik amaierara arte? / Zer egon zara? / Nola sentitu zara pozik?</i> <i>Ik: Pozik.</i> <i>Ir: Gustatu zaizu printzesarekin eta? / Eta norekin?</i> <i>Ik: Reyrekin</i> <i>Ir: Rey euskeraz? / Nola esaten dugu rey euskaraz badakizu?</i> <i>Ik: Ez</i> <i>Ir: Ez? / Galdetuko dugu? / IK3?</i> <i>Ik3: Erregea.</i> <i>Ir: Erregea eta reina?</i> <i>Ik: Printzesa.</i></p>
--	---

	<p><i>Ir: Printzesa / rey, reina erregea eta? / Erre...</i> <i>Ik: ...gina.</i> <i>Ir: Erregina / Bale galderarik? / IK3?</i> <i>Ik3: Zu e: non / non egon zara zure familiarekin?</i> <i>Ik: Gazte-luan.</i> <i>Ir: A ver / Erakutsiozu / Non dago zure familia gazteluan? / Zer marrazkian dago? / Galdera gehiagorik? / IK4 / Nola deitzen da erregea? / Ez duzu amestu hori ezta?</i></p>
--	--

Kasu honetan, nahiz eta maila baxu batean hasi (D maila), ekoizpenean aurrerapauso handia eman da, eta ondotestua pixka bat beregainago izatea lortu da. E ikastetxean bezala, **dimentsio diskurtsibo-erretorikoan** eman da jauzi nabarmena. Aurrettestuan, kasu gehienetan ez zaio eginkizunaren helburuari guztiz egokitu. Diskurtso oso etena da eta jario oso gutxikoa. Ez dira gai izan diskurtsoa modu autonomoan burutzeko, eta diskurtsoa luzatzeko irakasleak galderak tartekatzea ezinbestekoa izan da. Isiltasuna apurtzeko eta pentsatzeko ez da makulurik erabili, eta esaldiak osatu gabe geratu dira. Ondotestuan, ordea, jarioan jauzi txikia ikusi da eta mezua pixka bat beregainago izatea lortu da. Erdal makuluren bat ere erabili da ("e:").

Diskurtsoa eraikitzekeko estrategiei buruz, aurrettestuan, diskurtsoak ez du batere konplexutasunik, esaldi solteen metaketa da. Ondotestuan ere, diskurtsoa ez da oso konplexua eta ez da diskurtso estrategiarik erabiltzen, baina nolabait beregainagoa da.

Gaitasun linguistiko-testualean ere jauzi txikia ikusi da, ondotestuan. **Testuaren egitura eta testuaren kohesioa eta koherentziari** dagokienez, aurrettestuan esaldi solte batzuk ekoiztu dira; haien arteko loturarik ez dago eta amaieran informazio osagarria gehitu da, irakasleak galdera eginda. Ondotestuan ere, nahiz eta informazioa desordenatuta egon eta era autonomoan eman, testu gehiago ekoiztu da, eta antolatzailearen bat ere erabili da ("*hasieran*", "*eta gero*").

Morfologian ere jauzi txikia eman da; aurrettestuan, langai izan ez diren deklinabideko kasurik erabili, baina, ondotestuan, baten bat ikusi da ("*gazteluan*", "*reyrekin*"). Aditzaren denborari dagokionez, jauzi txiki txikia egon da. Ondotestuan behintzat "egon" aditzaren formak ekoiztu dira, baina zailtasunak ikusi dira beste aditz batzuk ekoizteko.

Sintaxian, ordea, nahiz eta zerbait gehiago ekoiztu, ez da jauzi handirik egon. Ondotestuan ere, sintaxia oso sinplea da (perpaus bakunetara mugatzen zen) eta akatsak egiten dira maiz ("*nago nik printzesa eta rey bat*").

Lexikoan jauzi txiki bat ikusi da, hitz batzuk gehiago ekoiztu direlako. Langai izan diren hitzak ez dira agertu, baina langai izan ez direnak erabili dira ("*ama*", "*aita*", "*printzesa*"). Erdal hitz batzuk ere agertu dira ("*castillo*", "*rey*", "*tato*").

1.3 LH1 ETA LH2 MATERIAL DIDAKTIKOETAN EGOKITZAPENAK

Behin LH1 eta LH2ko emaitzak ikertuta eta parte hartutako irakasleen balorazioak aintzat hartuta, material didaktikoetan eginbeharreko aldaketak definitzera iritsi gara. Prozesuarekin amaitzeko, LH2 eta LH1eko material didaktikoan egindako egokitzapenak islatuko dira. Esaterako:

- LH2. mailako material didaktikoan: batez ere azken egoera komunikatiboan irakasleek eman beharreko kontsigna aldatu egin da, ikasleek ahozko testu luzeagoak ekoizteko giltzarri dela ondorioztatu baita ikerketan. Horretarako, maila altuagoko ariketak sortu dira eta irakaslearen kontsigna zehatzagoa diseinatu da, alde batetik, irakasleak modu automatiko batean esku ez hartzeko, eta, beste alde batetik, entzule diren ikasleek ekoizten ari den ikaslea bukatzen uzteko eta bere testua ez mozteko.
- LH1. mailako material didaktikoan: aurrettestuko egoera komunikatiboa aldatu egin da. Ikerketaren ikuspegitik garrantzitsua da aurrettestua eta ondotestua ahalik eta baldintza berdinetan jasotzea, hori dela-eta, hasierako egoera komunikatiboa egokitu egin da.

2 IKASTETXEETAKO SISTEMATIZAZIOA ETA ITXIERA

Ikasturte hasieran zuzendaritza mailan, Berritzeguneko Normalizaziorako Aholkulariekin batera bildu ginen. Bilera hartan aztertu zen 2021-22 ikasturtean, LH1. zikloan ikerketa bideratzeaz gain, gainerako mailetan zein esku hartze eta noiz bideratuko ziren. Uste baikenuen, horrelako lanketek lagundu zezaketela ahozkoa lantzeko metodologian eragin nahi genuen berrikuntza hedatzen eta iraunkortzen.

Era berean, Berba-lapiko proiektuari itxiera nola eman adostu zen. Ikerketa fasea amaitu eta eskoletan maila guztietan ahozkoa modu jabetu eta sistematizatu batean lantzeko eraikitako bidea bermatzeko unea iritsi baitzen.

- **Aurtengo inplementazioen eta prestakuntzen antolaketa**

Aurreko ikasturtean maila bakoitzean ahozko hizkuntza modu jabetuan lantzeko material bana egon da LHko maila guztietan. Ikerketan parte hartuko zuten LH1. zikloko irakasleek prestakuntza zuzena jasotzea aurreikusita zegoen, baina, egitasmo honetan bizitu da esperientzia eta ikaskuntza sistematizatzeko asmoz, ikasturte honetan arreta berezia eskaini zaie irakasle guztiei. Horrela antolatu gara:

- LH1-4. maila bitarte: elkarrekin jaso dute prestakuntza. Fokua, LH1. eta LH2. mailako materialean jarri da, baina, kontuan izanda metodologia bera dela, prestakuntza saio horiek Hizkuntza-errutinen metodologia finkatu eta ezagutza partekatzeko baliatu dira.
- LH5 eta 6. maila: kasu honetan fokua bereziki 6. mailan jarri da, baina, kontuan izanda metodologia bera dela, talde honetan ere Sekuentzia Didaktikoak hobeto ezagutu eta zalantzak partekatzeko baliatu dira saioak.

Era berean, ikasturte osoan zehar jarraipena egin da maila guztietan.

- **Ahozkoa Haur Hezkuntzan ere bai**

Azpiarratzekoa da aurreko ikasturte bi ikastetxeek egin dute eskaera. Prestakuntza saioetan Haur Hezkuntzako irakasleak ere egoteko proposatu da, ahozkoaren lanketaren alde ikastetxe osoak arraun egiteko eta HHTik LHrako trantsizio horretan gehiegizko etenik ez egoteko. Soziolinguistika Klusterrak oso positiboki baloratu du eta baliabideak eskaini ditu hala izan zedin. Berritzeguneko aholkulariak ere prestakuntza-saioetan egon dira.

- **Ikerketa faseari amaiera, eskoletan**

Udaberri aldera, amaierako saioak antolatu dira bi ikastetxeetan. Klaustroak egindako prestakuntza-prozesuaz kontzientzia hartzea eta aurrera begiratzea nahi izan da. Itxiera saioetan, esperientziari buruz partekatzeaz gain, gai hauen inguruan gogoetatu eta erabakiak hartzeko gunea bermatu da: proiektua ikastetxean txertatuta jarraitzeko beharrezko baldintzak adostu; irakasle berrien harrera; talde eragile baten laguntza eta funtzioa; eta espazioak bermatu.

Proiektua aurrera eramateko balditzen artean, irakasleek hainbat ekarpen egin dituzte eta bozkatuenak taldeka garatu dira elkarrekin egindako saioan. Ariketa horretan lehentasun hauek aipatu dira:

- Irakasle berriei proiektuaren berria emateko beharra, txosten baten bidez, esaterako.
- Bilera orokorrean proiektua eta ziklo bakoitzeko helburu nagusia aurkezteko aukera.
- Zikloka koordinaketa (proiektua non txertatu, ordutegiak, ebaluazioak);
- Eskolako egutegian ere txertatzeko beharra (irailean hasieran, klaustroan proiektuaren aurkezpena)
- Zikloka ebaluaketa egin, partekatu ahozko hizkuntzaren aldetik ikusitako beharrak, aurrerapenak...

3 ONDORIO NAGUSIAK

Hona hemen 2022ko ekintza-ikerketatik ateratako ondorio nagusiak:

- **Hizkuntza Errutinen metodologia eraginkorra da:** LH1. eta LH2. mailan egindako ikerketaren emaitzei dagokienez, ikasle gehienek kasuan, maila bateko garapena egon da ahozko hizkuntzaren alderdian bai A ikastetxean eta baita B ikastetxean ere, nahiz eta azken horiek maila baxuago batetik abiatu.
- **LHko etapa osoan zehar, ahozkoa modu jabetu eta sistematizatuan lantzeko bidea egin da:** 2017-2018 ikasturtean eman zitzaion hasiera egitasmoari, urtero maila berri batean ikerketa bideratuz. Egun, LHko etapa osorako, ahozko hizkuntza era eraginkor batean lantzeko proposamena lortu da.
- **Irakasleak ahalduntzea ekarri du proiektuak:** urtez urte bermatu da irakasleen prestakuntza ahozkoa lantzeko metodologia berrietan, gainera, Berritzegunetako normalizazio aholkulariak ere bidelagun izan ditugu taldean. Urratsez urrats irakasleak formatu egin dira irizpide didaktiko-metodologiaren hautaketan, eta horrek irakasleak ahalduntzea eragin du, ahozkoa lantzeko ezagutza sakonduz.
- **Ahozkoan ardaztutako kultura eraiki eta txertatzeko konpromisoa hartu da:** aipatu bi ikastetxeak 4 urtez aritu dira ikerketan parte hartzen, eta urtero, prestakuntza eta aholkularitza jasotzen. Ikasturtearen amaieran, aho batez erabaki da ahozko kultura indartzeko bidean jarraitzea, hortaz, erabaki eta konpromiso berriak hartu dira. Era horretan, espazioak eta talde eragileak egotea ziurtatu da, datorren ikasturtean irakasleek lanketa aktibatuz eta jarraipena emateko.